

Gaur goizean familia bat etxegabetu dute Burlatan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 09/10/2025

Emakume bat eta bere bi seme alabak kale gorrian geratu dira, eta Espainiako Poliziak manifestarien aurka oldartu da behin baino gehiagotan, hainbat pertsona zaurituz.

Emakume bat eta bere bi seme alaba adin txikikoak kalean geratu dira gaur goizean, Burlatan(Nafarroa) izandako etxegabetzearen ostean. Goizeko hamarretan espero zen segizio judiziala Sanfrantzisko kalean baina goizeko zazpietan azaldu da Espainiako Polizia bertan bildutako herritarrak bortizki botatzera. Orduan eta ordezkari judiziala etxera heldu denean polizia bortizki oldartu da herritarren kontra eta zenbait zauritu eragin ditu. Hori gutxi balitz, piper gasa erabili duela salatu dute. Etxegabetzea gauzatuta Burlatako gizarte zerbitzuek hartu dute kalean geratu den familia. Bitartean, Burlatako udaletxera sartu dira protestan hainbat gazte, instituzioen utzikeria kasu honetan salatzeke.

Gaurko etxegabetzea salatzeke, Meryami eta haren familiari etxebizitza alternatiba erreal bat berma diezaiotela exijitzeko eta etxegabetzean izan den biolentzia poliziala salatzeke, elkarretaratzea egingo dute, 18:00etan, Burlatako Udaletxearen aurrean.

<https://eh.lahaine.org/gaur-goizean-familia-bat-etxegabetu-dute-burladan>